

EUSKARAK KLASE SOZIALIK BAI

Orokorki klase sozialetaz hitzegiterakoan, behe, erdi eta goi klaseak aipatzen ditugu baina hiru talde handi hauen barnean beste azpimultzo txiki batzu ere ikus ditzakegu. Adibide gisa, Ingalaterra hartu ezkerro, behe eta erdi klaseak bitan zatituta daudela ikus dezakegu:

| | | | |
|------------|---|-----------------|-----------|
| Goi klasa | | 1. taldea | |
| Erdi klasa | { | Erdi-goi klasa | 2. taldea |
| | | Erdi-behe klasa | 3. taldea |
| Behe klasa | { | Behe-goi klasa | 4. taldea |
| | | Behe-behe klasa | 5. taldea |

Arestian aipaturiko zatiketa honetako gorengoko mailakoek jantzi, erosotasun, heziketa eta abar hobeto bat izateaz gainera, badute klaseek ez duten eta behegoko mailako klase hautentzat edukiezina gertatzen den zerbait: hau da, hizkuntza eta hizkuntza bera erabiltzeko era.

Ingalaterran «eskola publikoetaz» hitzegiterakoan «pribatuetaz» hitzegiten da eta «eskola estataleaz» hitzegitean berriz, «publikoetaz».

Badirudi eskola publikoetan (= pribatuetan) eta estataletan (= publikoetan) irakasten den hizkuntza ez dela bat.

Eskola bi hauek ematen den hizkuntza ezberdinetari «U» eta «U ez den» hizkuntza deritzo.

ROSS maisuak zihonez, gorengoko klasea hizkuntza bertatik ezberdintzen da. Bere ustez ezberdintasunak honela ematen ziren:

| | |
|----------------|----------------|
| «U» hitzak | «U» ez direnak |
| sitting room | lounge |
| lavatory | toilet |
| napkins | serviettes |
| pudding | afters, sweet |
| sofa | settee |
| helping | portion |
| looking glass | mirror |
| note paper | writing paper |
| to take a bath | to have a bath |

Hizkuntza oroko azentua aldatzen joaten da herri batetik bestera. Baina hirietako eskolarik onenetan finkaturik dauden lehen klasekoentzako ez da hizkuntzarik aldatzen. Eskola publikoetan (= pribatuetan) «U» azentua erakusten zaie ikasleci baina estatuko eskoletan (= publikoetan) ez dira ikasleen azentua aldatzearen saiatzan. Honela bada, lehen klasekoek, semantika arlo ezberdin bat edukitzeaz gainera, azentua ere ezberdina erabiltzen dute. Hizkuntza dela eta klaseen arteko ezberdintasun hau emateak, ingelesez inperialismoaz hitzegiteko gai garen alditik, hizkuntza luxu bat bezala kontsideratua izan dela argi dago: hizkuntza luxu bat dela. Dr. Higgins-en pelikulaz gogoratzen bagara, hizkuntza nagusia gutxi batzuen eskuetan egon izan dela ikus dezakegu. «U» hitzegiten zucna, aberatsa zen. Hitzegiteko era zela eta, pertsona bakoitza zein auzategikoa zen jakin zatikeen.

Baina zer gertatu ohi da euskerarekin? Badirudi txiroena dugula bakarrik hizkuntza hau, hau da, hirugarren klase hortako jendearen hizkuntza. Mendietako ohiartzunari esker gorde izan dela dirudien hizkuntza honen, arnaberoaz iraun du ingelesezat hirugarren sektoreko laugarren taldekoak izango ziratekeen baserritarren mundutxo hortan. Badirudi, bigarren sektoreak, hirietan gehienbat, ez duela hizkuntza klasearen osagarritzat bezala onartu edo kontsideratu. Dirudienez, jende masaren

indarrez, hirugarren sektorekoen hizkuntza bezala kontsideratua zen gure euskara, diru balioz saldua, errefusatua edo ukatua izan zela. Historiak erakutsi nahi izan digunez, Euskal Herriko industrializazio aroan, gorengo mailako mundu hortan dirubideak irekitzeko erdara jakitea derrigorrezkoa gertatu zen. Beraz, sakela bezain bihotz apal eta umila zuten behe mailako jende multzo haren «animali hizkuntza» uztea bidezkoa iruditu zen.

Gaur egun, historia urri hartatik hiruzpalau urtetara, badi-rudi gure mundua zorabiatu egin dela. Sektore garrantzitsu hauetan hizkuntzaren beharizanak sentitu direnean, era batera edo bestera, euskara ikasteari eman dio jendeak. Orain, etorkizunerako plangintza arloan egin diren inkestetan, euskara hirietan gorde dela edo hiriko euskara mekanizatu batez gelditu garela esatera iritsi gara.

Zergaitik ez ote da sorrera ama Euskal Herriaren lur errainetan galdua den eta geurea den euskera hau luxu bat izanen guretzat?

Nola dan ingelesentzat heuren hizkuntza luxu bat izatea eta zergaitik ez euskaldunontzat? Industrializazio arazoa dela eta, klase sozialari jarraitzeko gure hizkuntza utzi behar izan dugu, ingelesak klase sozialari jarraitzeko beren hizkuntzari kolpe egin behar izan dioten artean. Nola ordea, klase sozialik agertzen ez duen gure hizkuntza hontaz lotsatu, galtzear egon eta dialektologia aldetik aberastu denean? Nola utzi historiari burla egiten? Nola saldu norbere izatea, norbere sentimentuak adieraziko edo azalduko dituen hizkuntza, sakel epel baten truke?

Ana Urkiza